

KULTURA "ELGOIBARTARREN ESANETAN" LIBURUAREN AURKEZPENA
GEHIGARRIA GAZTIA NAIZ BARREN · KIROLA SAN PEDROA TXIRRINDULARI IGOERA URRIAREN 12AN

BARRREN

ASTEKARIA



BABES OFIZIALEKO 99 ETXEBIZITZA ZOZKETATU DIRA

Etorkizuna zozketa baten menpe

"BATEN ZORIONA, ASKOREN ENBIDIA" (esaera zaharra)

ELGOIBARRA 2004ko urriaren 8a/XII. urtea/504. zkia

SAN PEDRO BAILARA

P

Deba Ibaia



Zure logela aukeratzekoan altzaria ez da garrantzitsuena. Koltxoi egoki bat aukeratu.

Gure erakusketa bisita ezazu!



**15
URTEKO
BERMEA**



TEMPUR koltxoi eta burkoak gorputzaren formara egokitzen dira beharrezko lekuetan ezinbesteko sostengua eskainiz.




**10
URTEKO
BERMEA**

Dunlopillo-ren Talalay latexeko betegarriarekin ez duzu ohean izerdituko. Koltxoiaren fabrikazioan gorputzaren hezetasuna mantentzen laguntzen duten materialak soilik erabiltzen ditugu. %50 BERO GUTXIAGO EMATEN DU



**Laxy^{zzz}
5 URTEKO
BERMEA**



Funda aldagarria
30° tan garbikorra



Latexeko xafla bi aurpegietan.
5 dentsitate ezberdinekin.
Akaroen, onddoen eta bakterien kontrako Maestersan tratamendua kanpoko zorroan.

LAGUNAK

12 hilabetetan ordaindu dezakezu

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

www.textillagunak.com



Perretxikoen antzera

Uda partean egunkarietako erredakzioetan lehortea egoten dela esaten da. Titular handietan jartzeko moduko notiziak falta dira. Berri txikiak asko izaten dira, eta berriak baino zaharrak diren gerrak, gosea, gaixotasunak... ere hor egon arren, ez dira letra larriz idazteko modukoak. Aurtengoa ere antzera joango zelakoan nago, baina udazkeneko haize bortitzak titular handiak eta berba zaparradak ekarri dizkigu.

Azken egunotan hautsak astintzen dituzten berri horietako asko irakurri, entzun eta komentatu ditugu. Hondarribiko gaztetxoaren kasua, Galindoren etxeratzea, homosexualen arteko ezkontzak legeztatzea, ETaren kontrako operazioa... Bata irensten hasi orduko hurrengoa izan dugu ate joka. Larregi.

Eta berriekin batera "adituak" sortu dira nonahi, perretxikoen antzera. Baina perretxikoak bezala adituak ere mota askotakoak izaten dira: primerakoak, onak, erdipurdikoak eta pozoitsuak. Denetatik izan dugu egunotan komunikabideetan. Batzuen iritziak interesgarriak izaten dira, guk pentsatzen dugunarekin bat etorri ala ez. Baina halakoetan sasi-jakintsu gehiegi azaltzen da bazter guztietan, denetaz ulertzen dutenak. Lehengoan bati entzun nion moduan, irratia emendatu eta musika jartzeko gogoa ematen du.

Bien bitartean Martin Ugalde isil-isilik joan zaigu, lan handia egin ondoren. Halako pertsona zintzo gehiago eta "aditu" gutxiago bagenitu...

Montse Arregi



Kulturaren Euskal Plana

Eusko Jaurlaritzak, zehazki Kulturaren Euskal Kontseiluak, Kulturaren Euskal Plana aurkeztu berri du. Bilbon, Euskalduna Jauregian, kultura arloko hamaika eragile eta ordezkari bildu zen irailaren 28an.

Dokumentua hasi eta bukatu egiten da baina sortzaileek *amaigabea* izan dadin nahi dutela ziurtatu dute. Alderdikeriak alde batera utzita osatutako plana omen da, besteak beste, hainbat taldek gidaturiko elkarteek hartu dutelako parte osieran.

Itxura ona du. Guztiok pentsatu izan dugu inoiz euskal kulturari zer hobe daitekeen, zer ken, zer egin eta zer desegin. Han eta hemen irakurtzen aritu ostean, Amets Arzallusen iritzi-artikulu bat esku artean daukat. "Susmagarria". Eta kito. Aurretik emandako itxaropenezko azalpen guztiak errotik lapurtu dizkit. Iritzi-artikuluan iradoki da gobernuaren hauteskunde kanpainako atal bat izaten ahal dela plana. Dantzari egindako tarteari buruzko gogoetak ere irakurri ditut beste artikulu batean, zer proposatu den eta zer proposatu beharko litzatekeen.

Nolanahi den, asteartean aurkeztu zuten, eta helburua lortzen ari da antza: handik eta hemendik planaren beraren eta oro har euskal kulturaren gaineko ekarpenak egiten ari da hainbat jende.

Euskal herritarrei euskal kultura antolatzen erabakitzeke aukera ematea omen da asmoa, parte-hartzea bultzatzea eta guztion artean euskal kultura bateratu eta aberatsa eraikitzea.

Proposamena erakargarria da ezbairik gabe. Utz diezaiozun bidea egiten, hauteskundeetako emaitzak gorabehera, izango ahal da egiazki euskal kulturaren eta batez ere euskararen normalizaziorako giltzarri.

Ainhoa Lendinez

| | |
|-----------------|----|
| Kexak..... | 5 |
| motZ MotZ..... | 8 |
| gehigarria..... | 11 |
| kiROLak..... | 20 |
| aGenda..... | 24 |

Oharra

Datorren asteartea, urriak 12, jai eguna denez, datorren ostiralean ez da alerik egongo. Beraz, BARRENen hurrengo alea urriaren 22an kaleratuko dugu.

Urruzunoren begi ezkutua

Priority aerphost



Hemeretzi urte zituela, udako oporretan bere lehen xoxa ofizialak irabazteko aukera jaso zuen. Baga eta Biga bailaretan barrena sakabanututako baserrien artean posta banatu behar zuen, baserriak baserrira, telegramak, pakete txikiak eta kartazalak, motor gainean. “Bere bizitzako uda”, hitz hauekin deskribatu zuen garai hura “korreoseko pilotuak”. Gustukoa zuen ofizioa. Eta bereziki eskuz idatzita iristen ziren gutunak. Era berezian tratatzen zituen. Banan banan aztertu, hatzamarrekin gutunaren lau muturrak lixatu, laztandu, begiak itxi eta kartazala usaindu, barruan doblegatuko orrialde kopurua mugatu eta edukina eta mezua imaginatu. Momenturako berak prestatutako kaxa polit batean kokatzen zituen motorrean, ondo babestuak, kalterik ez jasotzeko bidean. Horrexegatik iristen ziren hartzailearengana beti bere osotasunean. Baina bazuen korreoseko pilotuak, inork ezagutzen ez zuen ahulezia ezkutu bat. Ameriketatik iristen ziren gutunak. Kolekzionatu egiten zituen!!! Xarma berezidunak omen ziren. Irakurri, sekula ez zituen irakurtzen. Ezta ireki ere. Baina bereganatu egiten zituen. Horrelaxe egin zuen Ameriketatik bidalitako 143 gutunekin; 143 mezu bahitu zituen, 143 ahots isilpetu, Ameriketatik iristen ziren gutunak xarma berezi baten jabe zirelako.

Eguzkiñe Aranberri

MERKADILOAREN GATAZKAN ERE ELKARRIZKETA DA BIDEA

Eskutitz honen bidez, Alkatea merkadiloaren auzian mantentzen ari den jarrera prepotentea salatu nahi dugu. Bere esanetan “atzeraezinak” diren erabakiak hartzen ditu –merkadiloa lekuz aldatzea, hain zuzen- kaltetutakoekin lehenago hitz egin gabe eta beste talde politikoen eta baita ere bere taldeko zinegotzi batzuen kontrako iritzia izan arren.

Gainera, Merkadiloko ordezkariak zein beraien abokatuari informazio publikoa ukatu egiten die. Horretaz gain, Udaltzainen sarjentua erabiltzen du manifestazioetarako kartelak kalean jartzen dituzten merkadilokoak beldurtzeko.

Eta hau guztia da bakar bakarrik gainazalera ateratzen dena. Hainbat gazetaz seguru asko ez gara inoiz enteratuko.

Horregatik, Udalarik dei egiten diogu zentzuz jokatzeko eta sortu duen arazo hau ondo bideratzeko elkarrizketaren bidez; beti ere elgoibartarron interes orokorra helburu izanik eta ahaztu gabe gaur egun merkadiloak suposatzen duena, eta baita ere bere desagerpenak ekarriko lituzkeen ondorioak, bai bizitza sozialean, baita merkataritza arloan ere. Hori dela eta, Udalean mozio bat aurkeztu dugu Udalak hartutako akordioaren deuseztapena eta elkarrizketa eskatuz. Azkenik, dei egiten diegu herriko eragile desberdinei (sindikatu, elkarte, merkatarik, talde politikoak...) gatazka honen aurrean beraien iritzia eman eta elkarrizketarako bidea bultza dezaten.

Iñaki Odriozola eta Iñaki Bengoetxea,
Einbiou Herri Plataformaren izenean

ASTEKARIA

BARREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

Publizitatea:

☎ 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-posta:

barren@topagunea.com


Helbide informatikoa:

www.topagunea.com/barren

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIA Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue ZUZENTZAILEA Unai Villena KOLABORATZAILERAK Esther Gurrutxaga, Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.
AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.275 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



 KEXAK

◆ Herritar batek esan digunez, **Gabriel Krutzelaegi kaleko etxe berrien atzeko pasealekua oso egoera kaxkarrean dago:** “Benetan tamalgarria da babes ofizialeko etxeen atzeko aldeko pasealekuaren egoera. Zaborrez gainezka egoteaz gain, belarrak metro bateko luzera dauka, sasiek bidearen erdia jan dute eta hesiak puskatuta daude. Bada ordua herrian ditugun lorategi, eta aisialdi gune gutxiak behar den egoeran jartzeko!”.

◆ **Pedro Muguruza Etorbideko bizilagun batek esan digunez, zabor kontenedoreak sakabanu egin dituzte, eta autoentzako aparkaleku gutxiago dago:** “Lehen zabor kontenedoreak batera zeuden, eta orain toki desberdinetan jarri dituzte. Autoentzako bi aparkaleku gutxiago daude, eta lehen zeuden tokian ere, orain ezin da aparkatu, lurrean pibote batzuk daudelako”.


 GALDERAK

◆ **Noiz jarriko dituzte martxan Urasandiko eskailera mekaniko berriak?** Urasandiko bizilagun batek esan digunez, eskailera jarrita daude dagoeneko, baina oraindik ez dituzte martxan jarri. Hirigintza Sailera jo dugu, eta esan digutenez probak egiten ari dira, eta oraindik ez omen dakite noiz jarriko diren martxan. Lehenengo dena ondo dagoela ziurtatu behar dute, eta arazorik ez dagoela ziurtatutakoan irekiko dituzte jendearentzat.


 TXALOAK


◆ Herritar batek **Elgoibarko etxebizitzaren fatxadak margotu izana txalotu nahi du:** “Iniziatiba oso ona da, eta etxebizitzaren fatxadak margotzen ari direnetik, herriak beste itxura bat dauka. Oraindik etxebizitza asko gelditzen dira margotu eta txukuntzeko, beraz, jarraitu horrela!”.

MEZA

TXOMIN eta MELTXOR GURRUTXAGA URKIRIren oroimenez

MEZA izango da San Lorentzoko basilizan

domekan, hilak 17, goizeko 10:30ean.

Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



Etxebizitza bat

Ubitarte-Buruko 99 Babes Ofizialeko Etxebizitza zozketatu ziren joan zen urriaren 4an. Olaizaga Kiroldegiko frontoian zen zita eguerdiko 12:00etan, eta inork ez zuen hutsik egin. 349 lagun zeuden Etxebideko zerrendetan, eta harmailak jendez gainezka. Urduritasuna nabari zen zozketaren hasieran. Bukaeran berriz, alaitasuna eta tristura. 99 lagun pozez gainezka, eta gainontzeko guztiak etsita. Babes Ofizialeko Etxebizitza asko egin dira azkenaldian Elgoibarren, baina hurrengoak noiz egingo ote dira? Momentuz ez dago epe laburrerako proiekturik, baina Javier Madrazok lanean jarraituko dutela adierazi zuen. Beraz, etxebizitza tokatu zaienei zorionak, eta gainontzekoei itxaropenik ez galtzeko esan beharko diegu BARRENetik.

283 Babes Ofizialeko Etxebizitza



■ Urruzuno: 160 etxebizitza



■ Arregitorre: 24 etxebizitza



■ Ubitarte-Buru: 99 etxebizitza

Jokin Martinez

ZOKKETAN ETXEBIZITZA EGOKITU ZAIO



“Oso pozik nago. Merkatu libreko prezioei ezin nien aurre egin, eta horregatik eman nuen izena Etxebiden. Nire ustez, merkatu librean abusatu egiten da, eta horren kontra nago erabat. Gauza bakoitzak bere prezioa dauka, eta etxebizitza batemgatik ezin da hainbeste diru eskatu. Babes Ofizialeko Etxebizitzak dira gazteentzako ia aukera bakarra. Alternatiba oso ona eskaintzen du Etxebidek.”.

Amaia Arantzamendi



ZOKKETAN EZ ZAIO ETXEBIZITZARIK EGOKITU

“Pena izan da, %25eko aukera nahiko altua iruditzen zitzaidan eta esperantza pixkat baneukan. Hala ere, ez

BALDINTZAK

Babes Ofizialeko Etxebizitzak, gazteentzako ia aukera bakarra

Gaur egungo gazteek etxebizitza bat erosteko daukaten ia aukera bakarra, Babes Ofizialeko Etxebizitzak dira. Hala ere, eskaria eskaintza baino altuagoa denez, ez da batere erraza Babes Ofizialeko Etxebizitza baten jabe izatea. Eusko Jaurlaritzak arazo honi aurre egin nahi izan dio, eta horretarako Etxebide zerbitzua jarri zuen herritarren eskura.

Etxebizitzen Euskal Zerbitzua; Etxebide

1997an jarri zuen martxan Eusko Jaurlaritzak, etxebizitzaren arloan, herritarren eta Administrazioaren arteko benetako lotunea izateko helburuarekin. Etxebidek 2001ean izan zuen gorakadarik indartsuena, eta gaur egun 68.812 lagun daude bertako zerrendetan.

Izena emateko bi baldintza:

- Izena eman aurreko bi urteetan etxebizitza propiorik ez izatea.
- Soldata kopuru jakin bat edukitzea: 33.000 euro baino gehiago ez irabaztea urtean, eta behetik, jabetzako etxebizitzetarako urtean 9.000 euro irabaztea gutxienez, eta alokairuko etxebizitzetarako, 3000 euro gutxienez.

Non apuntatu daiteke:

Izena emateko formularioa bete behar da. www.etxebide.info webgunean lortu daiteke, edo bestela Gipuzkoako Kutxa edo Euskadiko Aurrezki Kutxan.

zozketa baten menpe

Javier Madrazo

Eusko Jaurlaritzako Etxebizita eta Gizarte Gaietako Sailburua

“Babes Ofizialeko Etxebizitza gehiago eraikitzea da gure helburua”



► **99 etxebizitza, 349 lagunentzat. Zer esango zenieke zozketa honetan suerterik izan ez dutenei?** Normala da triste gelditzea, baina hasteko, itxaropenik ez galtzeko esango nieke. Gaur tokatu ez zaien arren, oraindik badute etxe bat lortzeko aukera, itxaron-zerrendak emaitza oso onak ematen baititu. 99 familia hauen datuak berriz begiratu behar dira, eta ziur batek baino gehiagok etxea daukala, beraz, ez zaie etxerik egokituko.

Bestalde, egiten ari garen lanean konfiantza izateko eskatuko nieke. Elgoibarren lanean jarraitu nahi dugu, Babes Ofizialeko Etxebizitza gehiago egin nahi ditugu, elgoibartarren beharrak asetzeko.

► **Noizko egingo dituzte etxebizitza hauek?** Zozketa egiten denetik pare bat hilabetera hasten dira obrak, eta bukatzeko 24 edo 30 hilabete behar izaten dituzte. Bestalde, Urruzunoko etxebizitzak datorren urteko maiatzerako bukatuko dira.

► **Etxebizitza hauek betirako dira, ala denbora konkretu baterako?** 75 urtetarako dira. Urte asko dira, eta nire nahia, epe hori betetzen denean etxebizitza hori erabiltzen jarraitzeko aukera eskaintzea da. Momentu hartan dagoen gobernuak erabakiko du, baina garrantzitsuena lursail hori publikoa dela da.

► **Babes Ofizialeko zenbat etxebizitza egin dira azken urteotan Elgoibarren?** Guztira 184 etxebizitza egin dira. Urruzunon 160 eta Arregitorren 24. Aurrerantzean hasiko dira Ubitarte-Buruko 99 etxebizitzak eraikitzen.

► **Etorkizunera begira, ba al dago Elgoibarren Babes Ofizialeko Etxebizitzak egiteko proiekturik?** Momentuz ez daukagu ezer, baina Marivi Agirregomezkorta alkatearekin hitz egin dut, eta elkarlanean jarraitzeko asmoa daukagu. Udalak Babes Ofizialeko Etxebizitzak egiteko lursail egoki bat baldin badauka, Eusko Jaurlaritzatik lursail hori erosi eta etxebizitzak eraikiko dira.

► **Eta inguruko herrietan?** Momentuz Eibarren bakarrik daukagu proiekturen bat martxan, baina gure asmoa ahalik eta herri gehienetan eraikitzea da.

“Zenbat eta Babes Ofizialeko Etxebizitza gehiago egin merkatu libreko etxeen prezioak jaitsi egingo dira”

► **Gaur egun etxebizitza bat alokairuan hartzea ere, oso zaila da. Aspektu honetan egin al daiteke zerbait?** Bai, eta Jaurlaritzatik lanean ari gara. Bigarren eskuko etxebizitza asko hutsik daude. Gure asmoa, etxeen jabeekin kontratua egin, eta alokairu merkeago batean Etxebideko zerrendetan dagoen jendeari eskaintzea da. Alokairu baxuak izango dira, 30.000 pezeta ingurukoak, eta diferentzia Jaurlaritzak ordainduko du. Gainera, dirulaguntzak eskaintzen dira sukaldeak eta komunak berritzeko.

► **Ba al dago honelako kasurik Elgoibarren?** Bai. Momentuz 9 etxebizitza ditugu. 4 dagoeneko alokatu ditugu, eta gainontzekoak ere berehala alokatuko dira. Bestalde, bigarren etxebizitzaren bat hutsik daukan etxe-jabeari gurekin harremanetan jartzeko eskatuko nioke, Eusko Jaurlaritzako Bizi-Gunera deituz.

► **Nolako erantzuna izan du inizatiba honek?** Momentuz oso ona. Hasiera batean jendeak ez zuen etxerik alokairuan hartu nahi, baina gaur egun Etxebiden izena ematen duten askori ez zaio axola etxea jabetzan edo alokairuan hartzea. Alokairu merkeak eskainiz, jendeak gustura hartzen ditu.

► **Zein etxebizitza politika uste duzu dela egokiena?** Biak bultzatu behar dira, alokairua eta jabetza. Gazte jendearentzat alokairua egoki ikusten dut, eta familia egonkorra daukatenentzat jabetzazko etxebizitzak.

► **Merkatu librean jaitsiko al dira noizbait etxebizitzen prezioak?** Zenbat eta Babes Ofizialeko etxe gehiago egin, merkatu libreko etxebizitzen salneurria jaitsi egingo delakoan nago. Oraindik igotzen ari dira, baina Euskal Herrian Estatu Espainiarrean baino gutxiago garestitu dira etxeak azken urteotan.

► **Zein da Babes Ofizialeko etxeen portzentajea Euskal Herrian?** Eraikitzen diren etxebizitzetatik %38 Babes Ofizialekoak dira. Estatu mailan, %10ean dago portzentaje hau, beraz, oso gaitetik gaude.

500 lagunetik gora azoka lekuz aldatzearen kontrako manifestaldian

Udalak bere erabakia mantentzen du, eta gainontzeko alderdiak mozioa aurkezteko lanetan ari dira

Elgoibartar ugarik erantzun zioten azokako merkatarien deialdiari, eta joan zen irailaren 30ean, kaleak jendez bete ziren ostegunetako azoka lekuz aldatzearen kontrako protesta egiteko. Manifestaldi zaratsua izan zen, eta behin eta berriz, herriaren ahotsa entzuteko eskatzen zioten Marivi Agirregomezkorta alkateari.

Erabakia mantendu

Udalak bere erabakia mantendu egingo duela jakinarazi digute alkatetzatik. Migel Anjel Mujikak esan digunez, Xixilion parkea Plaza Handia baino toki hobeagoa da azoka jartzeko, eta hartutako erabakia guztion hoherako hartu dutela ziurtatu digu: “Xixilionen toki gehiago dago, sarbide egokiak ditu, autobusa bertan geratzen da, eta Plaza Handitik 300 metroko distantzia bakarrik dago”.

Udalaren helburua herriko Alde Zaharra trafikoarentzako ixtea da. Horretarako pausoak ematen hasi dira, eta lehenengoa azoka Plaza Handitik kentzea izan da.



Herritarren erantzunaren aurrean lasai daudela aitortu digu: “Erabakiarekin ados dauden herritarrak ere asko dira, beraz, ezin da esan herri guztia azokaren leku aldaketaren kontra dagoenik”.

Mozioa

PP, PSE-EE eta Ezker Batuak mozioa aurkeztuko dute udaletxean, ostegunetako azokaren leku aldaketaren kontra. Beraien helburua, Udal Gobernuak hartutako

erabakia hobeto hausnartu, eta guztien artean beste irtenbide bat bilatzea da. Bestalde, Einbiou Herri Plataformakoak ere, erabaki honen kontra zerbait egitekotan dabilta, eta oraindik erabakita ez badago ere, posible da, beraien aldetik beste mozio bat aurkeztea. Unai Zulaika Ezker Batuako zinegotziak esan digunez, bera herriko talde desberdinek udaletxean parte hartzearen aldekoa da, eta Einbiouri behar duen laguntza guztia eskaintzeko prest azaldu da.

Omenaldi hunkigarria egin zioten Jose Krutzelegi “Katalotza” soinu-joleari Errosario jaietan

Joan zen urriaren leian hasi ziren Errosario kaleko jaiak. Arratsaldean hainbat ekitaldi desberdin izan ziren, eta gauean, urtero bezala, Errosario kaleko bizilagunen afaria izan zen Kultur Etxeko sotoan. 55 lagun inguru bildu ziren, Gabi jatetxeokoei prestatutako afaria jateko.

Afal ostean, hainbat urtetan Errosario kaleko jaietan, Juliana Zubizarreta pandero jolearekin batera parte hartu izan zuen Jose Krutzelegi “Katalotza” omendu zuten. Jose Krutzelegi duela gutxi hil zen, eta bere alabek jaso zuten



Juanito Gorostiza hizlari, Katalotzaren alabak eta Pedro Ezkurra.

soinu jolearen omenezko plaka. Pedro Ezkurra, gaztetan hau ere soinu jolea, eta “Katalotzaren” laguna izandakoak eman zien plaka. Oso momentu hunkigarria izan zen, eta hiru alabek emozioz beterik jaso zuten beren aitaren omenezko plaka.

Jaiak giro onean jarraitu zuen Gelatxo orkestrarekin. Asteazkenean zehar ere, beste ekitaldi batzuk izan dira, eta atzo bukatu ziren Errosario kaleko jaiak.

Urriaren 15ean bukatuko da Kiribilka programa

Datorren ostiralean, urriak 15, izango da Elgoibarko Izarrak martxan jarritako Kiribilka programaren aurtengo azken saioa. Programari bukaera emateko, ekitaldi berezia antolatu dute. Arratsaldeko 17:30ean hasita, "Poxpolo Mokolo pailazoak eta Konpainia" ikuskizuna izango da. "Eskola eta festa" izeneko ikuskizuna eskainiko dute. Ordu eta erdiko iraupena duen kolorez beteriko ikuskizuna izango da. Alde batetik, magia, musika eta jokoak tartekatzen dira, bestetik, umorea, maitasuna, barrea algarak, eta baita malenkonia uneak ere.

Poxpolo ta Mokolo ez dira bakarrik egongo. Beraiekin izango dira, oraingoan

ere, haurrentzako ezagunak izango diren pertsonaia ezberdinak: irakasle bitxiak, ikasle ezberdinak, ipotxak, animaliak eta beste herrialde ezberdinetako gizakiak.



Administraritzan lan egiten duten emakumeentzat gestio ikastaroa

Debegesak antolatuta, Debabarrenako enpresetan lan egiten duten emakumeentzako gestio ikastaro berria hasiko da urriaren 19an. Ikastaroaren helburua, eskualdeko enpresetan lanean ari diren emakumeak formatzea da, emakumeak zuzendaritza postuetara iritsi ahal izateko. Ikastaroa doan izango da. 150 euroko matrikula ordaindu beharko da, baina ikastaroa amaitu ostean orduen %80a bete dutenei diru hori itzuli egingo zaie. Ikastaroa 100 ordukoa izango da.

Bestalde, urriaren 18tik azaroaren 9ra, negozio ideia bat duten emakumeei zuzendutako autoenplegu ikastaroa egongo da. Besteak beste, ideien analisia eta enpresa plana, marketing eta gestio komertziala, enpresaren eratzea, ekonomi gestioa, zerga plangintza eta lan plangintza landuko dira.

Informazioa: www.debegesa.com helbidean edo 943 82 01 10 telefonoan.

San Migeleko zozketa

Aiastiako San Migel jaietan zozketatutako txekorraren irabazlea agertu da. 3.778 zenbakia izan da saritua, eta Juan Jesus Arriaga izan da irabazlea. Zorionak!

Mendaroko 10 horma margotu zituzten I. Graffiti Lehiaketan



Topaguneak antolatuta Euskal Herriko I. Graffiti Lehiaketa ospatu zen joan zen urriaren 2an, Mendaron. Goizeko 10:00etan hasita, lehiaketan parte hartu zuten hamar graffitigile onenek, bakoitzari eskainitako horma margotu zuten. Honetaz gain, Break Dance, skate, perkusio, eta scratch erakustaldiak izan ziren, besteak beste. Herri desberdinetako jendea hurbildu zen Mendarora, eta giro bikaina izan zen.

1.200 euroko lau sari eskaini ziren. Irabazleak, Igor Rezotz, (teknika hobereena) Egoitz Konde eta Eneritz Velasco, (gaia hoberen islatzeagatik) Aitor Larrañaga eta Haritz Irueta, (kolore onenak) eta Imanol Gararzabal (graffiti originalena).

Merkatu Plazako dendariak 60 euroko 4 sari banatu dituzte

Hilabete honetan 60 euroko 4 sari banatu dituzte Merkatu Plazako dendariak. Sara Fernandez, Ana Mari Lizaso, Kontxi Eguren eta Lourdes izeneko emakume bat izan dira irabazleak. Azken hau ez zen argazkia ateratzera agertu. Saria erosketara txeketan jaso dute, eta Merkatu Plazako postuetan gastatu beharko dute. Datorren hilabetean, bi lagunentzako bi afari zozketatuko dituzte.



Herri Eskolakoak Haizpeltz mendian izan ziren

Herri Eskolako Mendi Taldea hasi da dagoeneko ikasturte honetako mendi irteerak antolatzen. Joan zen irailaren 26an, Izarraitzen dagoen Haizpeltz (893 metro) mendian izan ziren. Guztira, 55 lagun inguru bildu ziren. Hurrengo irteera datorren urriaren 24an egingo dute **Idiazabalako "Finalistaren Egunera"**. Bertan taldeko 22 umek joan zen ikasturteko lehiaketa bukatu zutela adierazten duen diploma jasoko dute.



Hondarribin bere buruaz beste egin zuen gaztearen kasuak, gaztetxoen arteko tratu txarrak bistaratu ditu

ZER BEGITANTZEN ZAIZU HONDARRIBIKO GAZTETXOAREN KASUA?



MARI JOSE OLIVARES
42 urte, abokatua

Albiste txundigarria izan da. Estutasunez hartu dut albiste, beharbada gure seme-alabak ere honelako egoeraren bat jasaten ari dira eta ez dakigu ezer. Betidanik gertatu dira honelakoak, haurrak maltzurak dira.

INMA MOLINA
35 urte, kamioi gidaria

Latza. Haurrek taldeka biltzen direnean min psikologiko handia egin diezaiokete ahulenari. Umeak direnez, dena barkatzen zaie, baina guraso eta irakasleek mugak jarri behar dituzte.



ELENA RODRIGUEZ
27 urte, aerobik irakaslea

Albiste gogorra izan da. Egoera honetan irakasleek neurriak hartu beharko lituzkete. Bere buruaz beste egiteko, haur horrek jasan duen egoera benetan latza izango zela uste dut.

IÑIGO LEGORBURU
42 urte, mekanikoa

Mutikoak bere buruaz beste egitea gogorra izan da, dudarik gabe. Baina ezin zaio errua zuzenean eskolari bota, ikasleak irakasleen aurrean ez dira honela portatzen. Sakon aztertzeke gaia da.



JAVIER IBAÑEZ
43 urte, galdaragilea

Oso gogorra. Adin horretako bi seme-alaba dauzkat, eta lehenengo erreakzioa honelako egoera bizi dezaketela pentsatzea izan da. Honelakoak betidanik ezagutu ditugu, eta konponbidea ez da erraza. Umeak maltzurak dira.

ELI PEREZ
35 urte, irakaslea

Harritu egin nau, eta pena eman dit. Umeen artean ahulenaren kontra egitea sarritan gertatzen da. Umekeriak dira, eta ez zaie garrantzia ematen, baina helduok neurriak hartu beharko genituzke, honelakoak gertatu aurretik.





umeentzako jantziak

Punta puntako markak

Santa Ana, 12 • Tel.: 943 74 04 07

DKNY
KENZO
TIMBERLAND
ELLE
IKKS
NOLITA



Bulegatu S. Coop.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

Gazti BARRen



Berrikuntzak hezkuntza sisteman

"PIRINIOAK JAZZ ORCHESTRA"

EUROPAKO MUGAZ GAINDIKO LEHEN ORKESTRA

Iriztia gomendio bihurtzen da musika zutabe honetan. Eta beraz, ez da kritika hutsean zentratzen. Izan ere, asmoa musika zaletasuna piztea eta agian hain eskuragarri ez dauden lanak ezagutaraztea baita. Horretarako, berriak zein merkatuan urteak daramatzaten diskoak gerturatzeko dizkizuegu. Pirinioak Jazz Orchestra Iparraldeko eta hegoaldeko jazz musikari onentsuenez osatutako big band-a dugu: hegoaldekoontzat ezagunak diren Iñaki Salvador (pianoa), Dani Pérez (gitarra) edota Gonzalo Tejada (baxua) daude bertan, adibidez. Duela bi urte sortu zen Iñaki Askunze nafarra zuzendari zutela eta 2003ko irailean grabatu zuten lehen lan hau. Hamaika abestiz osatutako disko honetan uzta propioko kanta zein klasikoek moldaketak biltzen dituzte. "Rayos X" eta "Sin motivo" Askunzek sinatzen ditu eta "Celine" eta "Ouap-Toubab", berriz, Jacky Berecochea tronpeta jole eta zuzendari artistikoak. Euskal klasi-koen artean "Lua lua" eta "Haika mutil" herrikoiak, Negu Gorriak-en "Esan ozenki" eta Hertzainak-en "Aitormena" aurki ditzakegu. Jazz klasi-koen artean, berriz, Jaco Pastorius-en "Three views of a secret" eta Duke Ellington-en "Perdido". Big band estiloz gozatzeko aukera paregabea.

Ion Gurrutxaga



JUAN MARTINEZ, Rap abeslaria

"Rap abeslaria izateko jaio"

JERTSE ETA PRAKA ZABALAK, BOST TAILA HANDIAGOAK GUTXIENEZ, TXANOA EDO BISE-RA. HORIXE IZATEN DA RAP ZALEAK BEREIZ-TEN DITUEN ARROPA, ETA GISA HONETAN JANTZITA AGERTU ZAIGU JUAN MARTINEZ (15 URTE) ERREDAKZIORA. KOLONBIARRA DA JAIOTZAZ, BAINA BI URTE DARAMATZA EL-GOIBARREN BIZITZEN. EUSKARA IKASTEN ERE SAIATU DA, BAINA LERRO HAUETARA EKARTZEAREN ARRAZOIA RAP MUSIKARAKO DUEN ZALETASUNA DA. ESATEN DUGUNAREN LEKUKO, MENDAROKO GRAFFITI LEHIAKETA-REN BARRUAN SELEKTAH SOUND SYSTEM RAP TALDE EUSKALDUNAK PARTE HARTU ZUEN ETA JUAN EK ESZENATOKI GAINERA IGTZKEKO AUKERA IZAN ZUEN ABESLARIAK IKUSLEEI EGIN ZIEN GONBIDAPENARI ERAN-TZUNEZ. EZ ZEN BATERE GAIZKI ARITU.

Noiztik rap musikarako zale- tasun hau?

Nire familiarekin Txilen bizi izan nintzen denboraldi batez eta bertan zaletu nintzen duela 3 edo 4 urte, han rap-a asko entzuten baita.

Non eta noiz praktikatzen du- zu?

Rap musika abesten duen anaia zaharrago bat daukat. Berak abestu eta nik zaratak atereaz laguntzen nion. Ahotsarekin instrumentuen doinuak imitatu edo zarata ezberdinak ateratzea da niri gustatzen zaidana, bepp-hop izena du honek. Jendeak errazago uler dezan "Loca Academia de Policia" filmean agertzen zen beltzak egiten zuenaren antzerakoa da. Lehen rape-roak hasi zirenean, oraindik ez zegoen nahasketa mahairik eta beraiek sortzen zituzten ahotsarekin abeslari nagusiari laguntzeko doinu eta oinarrizko erri-mak.

Zer da rap-a zuretzat?

Kaleko musika da, urbanoa, sentitzen duzuna espresatzeko balio duena. Normalean egoera



egin behar da"

bat salatu edo kritikatu nahi izaten da rap-arekin.

Zer da garrantzitsuagoa, letrak ala musika?

Biak. Gogoko ditut letra ona duten abestiak, baina baita doinuaren arreta gehiago jartzen dutenak ere, perkusioa sartzen dutenak, batez ere. Abestiak entzun eta perkusioaren oinarriko erritmoak ahoarekin imitatzen saiatzen naiz. Beti darabiltzat doinuok buruan, kalean noala, dutxan, gelan, e.a.

Mendarokoa eszenatoki batera igotzen zinen lehen aldia izan al zen?

Hemen bai. Inork igo nahi zuen galdetu zuten eta aprobetxatzeko aukera zenez, gora egin nuen birritan pentsatu gabe. Hasieran urduri xamar hasi nintzen, baina seguitan hartu nion puntua. Inauterietako ere ikuskizunen bat prestatzeko asmoa daukagu lagun batzuek.

Zer behar da rap abeslaria izateko?

Rap-a egiteko jaio egin behar dela uste dut, ezin da inor hezi rap abeslaria izan dadin. Nik barruan daramadala uste dut.

Zer Rap mota gustatzen zaizu? Nongoa?

Rap iparamerikarra gogoko dut, baina ez mezuagatik, doinuengatik baizik. Hemen ere gero eta gehiago entzuten dira hip-hop doinuak eta gogoko ditut. Badago talde andaluziar bat oso gogoko dudana; "SFDK". Hain justu, gaur jotzen dute Bergarako Jam aretoan. "2-Pac", edo "Snoog doogy doog" es-

"Ahotsarekin instrumentuen doinuak imitatu edo zarata ezberdinak ateratzea da niri gustatzen zaidana, bep-hop izena du honek"



"Rap-a kaleko musika da, urbanoa, sentitzen duzuna espresatzeko balio duena "

tatubatuarrak gogoko ditut, baina "Eminem" ez horrenbeste.

Ikusten al diezu antzekotasunik rap-a eta bertsolaritzaren artean?

Bertsolariak entzun izan ditut eta izugarriak iruditzen zaizkit. Rapen "free style" edo estilo librearen deritzon modalitatea ere badago, non inprobisatu egiten den. Nire anaiak egiten du.

Euskarazko rap-ak ondo ematen al du belarrira?

Bai, entzun izan dudana gustatu izan zait, nahiz eta pare bat talde bakarrik dauden euskaraz aritzen direnak.

"MANIKIEN GALERIA"
MIKEL ZUBELDIA

Dagoeneko argitaratua dago iaz Euskaltzaindiaren Txomin Agirre idazlehiaketan garaile suertatu zen eleberria: "Manikien galeria", Mikel Zubeldia donostiarrarena. Bitxia bada ere, liburua berez ez da eleberri bat, hiru narrazio ezberdinez osaturik baitago. Hiru kontakizunak Simón izeneko estatuan girotuta daude. Leku hori ez dago inon, alegiazkoa da, egileak asmatu du liburuan kontatzen direnak kokatzeko. Lehenengo istorioa, "Katu bi, zakurra eta umea zaintzeko neskamea behar dugu", gainbeheran etorritako nobleziako emakume bati buruzkoa da. Chichovska markesak izenburuan aipatzen den iragarkiari kasu egin eta neskame lanetan jardun beharko du, iragandako une gozoak atzean utzita. Bigarrenak, "Terminus-ek", barne ahots berezia daukan ferietako saltzaile bat du protagonistatzat. Hirugarrenak, "Bluefield-go krimena-k", Barry Lutton twist kantariaren ustezko erahilketa ikertuko duen kazetari baten gorabeherak kontatzen ditu. Mikel Zubeldiak etorri handia erakusten du leku nahiz pertsonaien izenak eta egoerak asmatzerako orduan. Bere estiloari dagokionez, idazkera landua erakusten du donostiarrak.

Jon Eugi



Hezkuntza ER

Aldaketak, aldaketak eta aldaketak. Badirudi sekula ez direla bukatuko hezkuntza sistemako aldaketak eta berrikuntzak. Lehen erraza zen: I. mailatik 8. mailara, eta ondoren BUP eta COU. Duela urte batzuk, BUP kendu, eta LOGSE batxilergoa jarri zuten martxan. Eta orain... orain ikasgaiak, azterketak eta beste hainbat arlotan egin nahi dituzte aldaketak. Ondorengo erreportajea jaso ditugu Gobernuak proposatzen dituen aldaketa batzuk.

2006/07
IKASTURTEA



2006-2007 ikasturterako aldaketak

Maria San Segundo Gobernuko Hezkuntza Sailburuak, Estatuko Autonomia Erkidego guztietarako aldaketak proposatu ditu hezkuntza sisteman.

Aldaketarik nabarmenena erlijio ikasgaiak jasango du. 2006-2007 ikasturterako Erlijioen Historia eta Kultura eskainiko da derrigorrez, Geografia, Historia eta Hiritarrantzako Hezkuntza programen barnean. Azken ikasgai hau ere berria da, eta bere helburua ikasleei balore demokratikoak erakustea izango da, eta sexuen arteko berdintasunean oinarrituko da.

Erljio ikasgaia, gaur egun ezagutzen dugun bezala mantenduko da, ikastetxe eta institutu guztiek beren ikasgaien artean eskaini beharko dute, baina hautazkoa izango da. Ez du notaren batez besterako, beka lortzeko edo unibertsitatera sartzeko balio.



REFORMAK

Debate luzea

Hezkuntzako aldaketei buruzko debateak, abendu ingurura arte iraungo du. Maria San Segundo Hezkuntza Sailburua Autonomia Erkidego desberdinetako hezkuntza arduradune-

kin bilduko da epealdi honetan, eta datorren urteko otsaila alderako aterako dituzte ondorioak.



DBHn ikasgai gutxiago

Etapala aldaketak ikasleei eragiten dizkien zailtasunak kontuan izanik, DBHko ikasgai kopurua gutxitzeko proposamena egin dute.

Eskola porrota

Eskola porrota saihesteko, DBHko ikasturte bakoitzaren amaieran ikasle bakoitzari azterketa bat egingo zaio. Kurtso guztietan errepikatu ahal izango da, baina etapa bakoitzean gehienez bi aldiz.




Ebaluaketak

Ikastetxeek beren ikasleen ezagutzak zenbatekoak diren jakiteko azterketa jakin batzuk egingo dituzte, bakoitzaren zailtasunak ezagutu, eta arazoa konpondu ahal izateko. Azterketa hauek Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko bigarrenengoan egingo dira.

Batxilergoa

Batxilergoak hiru aukera desberdin izango ditu: Artea, Humanitateak eta Gizarte Zientziak, eta Zientifiko Teknologikoa.

Batxilergoa bukatzean ez da errealida-azterketarik egongo. Unibertsitate sartzeko, proba homologatu bat gainditu beharko dute ikasleek. Azterketa honen ezagutza unibertsitateek, hezkuntza administraritzak eta Unibertsitate Koordinazio Kontseiluak adostuko dituzte.



lots@gabe

Parte hartu nahi baduzue deitu edo etorri BARREnera. Animatu!

@ Defini ezazu zure burua hiru hitzetan.

Nahaslea, zuzena eta lotsarik gabea.

@ Gurasoei inoiz esan diezun gezurrik handiena?

Ezin dut esan, gezurra esan nio-la igarriko du bestela.

@ Eta zuri, sekula esan dizuten gezurrik handiena?

Nire lagun on bat jipoitu eta sudurra hautsi ziotela esan zidan lagun batek ni beldurtzeko.

@ Bertute bat.

Nire lagunen laguna naiz

@ Esan dizuten piroporik politena?

Mutilak ez dira batere originalak, "tia buena" eta horrelakok.

@ Eta zuk esango zenukeen bat?

Zure amak gozogilea beharko du izan, horrelako bonboi bat ezin baitezake edonork egin.

@ Gaztea naiz eta ez nago konforme...

Nire adinarekin. Nagusiagoa izan nahi nuke askatasuna izateko.

@ Nor eramango zenuke irla desertu batera?

Alaitz, nire lagunik onena.

@ Denboraren makina bazenu, zer garaitara alde egingo zenuke?

Iraganera. 1970. urtera joango nintzateke nire aita nire adinarekin nolakoa zen ikusteko.

@ Irakasleak 'txuleta' batekin harrapatuz gero, zer?

Gertatu izan zait. Urduri jarri eta burura etorri zitzaidan lehen gauza esan nion.

@ Harro zauden zure gorputzeko atala?

Sudurra.

@ Gorroto dut...

Purea.

@ Usain bat.

Errearen usainak erakartzen nau.

@ Zer egiten duzu mutil bat gogoko duzunean?

Lagun bati eskatzen diot esan diezaion.

@ Tatuaje bat egitekotan, non?

Sorbaldan egingo nuke ipotx bat.

@ Nola ikusten duzu zure burua hemendik 20 urtera?

Ezkonduta, bi hurrekin eta lanean.

gazte
informazioa
Kultur etxean. Bigarren solairuan
Tel.: 943 74 14 61

Lan dosierrak, bekak, lehiaketak... guzti honen inguruko informazioa
Gazte informazioko panelean aurki dezakezu!

Handia izandakoan...

akuikultorea

izan nahi dut



AITZOL GONZALEZ SALEGI

Batxilergoa bukatu ostean, jende askok ez du zer ikasi. Aitzol Gonzalezek ordea, argi zeukan naturarekin zerikusia duen ikasketaren bat egitea nahi zuela. Unibertsitatera joan zen lehenengo, baina urtebete egin ostean laga egin zuen. Orain Goi Mailako Akuikultura zikloa egiten hasi da Mutrikun. Gaurkoan gure artera ekarri dugu, eta ziklo berri honen nondik-norakoak azaldu dizkigu.

Zer da Akuikultura?

Arrainak hazteko zientzia. Arrainak eta algak hazten ikasten da.

Nola izan zenuen ziklo honen berri?

Koadrilako batek komentatu zidan arrainekin zerikusia zeukan ziklo bat martxan jarri nahi zutela Mutrikun. Informatu egin nintzen.

Zergatik aukeratu zenuen Akuikultura Zikloa egitea?

Animalien mundua izugarri gustatzen zait. Ez nuen nire burua lantegi batean sartuta ikusten.

Badirudi kostaldekoentzat eginiko zikloa dela. Nola hartu zaituzte?

Ondo. Ez dauka zerikusirik. 11 lagun inguru gaude klasean, eta toki guztie-

takoak gara. Itsasoa asko gustatzen zait, eta batez ere, animaliak. Noizean behin lagunekin arrantzara ere joatea gustuko dut, ez da nire zaletasunik handiena, baina ondo ibiltzen gara.

Zer ikasi duzu aurretik?

Batxilergoa bukatu ostean, unibertsitatera joan nintzen. Urtebete egin nuen bertan, eta ez zitzaidan batere gustatu. Teoria izugarri sartzen ziguten, eta nik nahi nuena ez genuen ia ikusi ere egiten. Landareen mundua ikasteko, praktikak egin behar ziren. Gogorra egin zitzaidan, eta utzi egin nuen.

Zenbat irauten du ziklo honek?

Bi urteko iraupena dauka. Goi Mailako ziklo bat da, baina arrain eta algen mundura zuzenduta dago. Unibertsitatean ez bezala, ziklo honetan alde praktikoak, teorikoak baino garrantzia handiagoa dauka. Argi esan digute, praktikak gainditzen ez baditugu, ez garela bigarren kurtsora pasatuko.

Nolako praktikak egiten dira?

Arrain eta algekin zerikusia duten praktikak. Esan digutenez, urpekaritza praktikak ere egingo ditugu behar bada, eta Donostiako Akuariumean oso interesatuta omen daude ziklo honekin, eta bertan praktikak egiteko aukera izango dugu.

Zein irteera dauzka ziklo honek?

Arrain haztegiaren batetan, edo akuariumetan egin daiteke lana. Espero dut lanpostu egokiren bat aurkitzea.

maitasuna laztan
pornografia ORGASMOA
penetrazioa sexualitate
masturbazioa



Eli Moreno
SEXOLOGOA

EDONORI GERTA
DAKIOKE

Gaur goizean entzun dut bi emakume hilda topatu dituztela, hil egin dituzte eta sua eman eta... posible da detaile gehiago ematea, baina ez du merezi.

Egunero halako berriak entzuten ditugu komunikabideetan, baina oraindik ere guri ezin zaigula gertatu us-te dugu, hori seme-alabak, senar mozkor bat, maila sozio-ekonomiko baxua eta 50-60 urte inguru duten emakumeei gertatzen zaie, baina niri?

Honez gero jakin bada-kigu edozeini gertatu ahal zaigula, bikote gazteen artean ere gertatzen dela.

Askotan drogei, jelskor izateari, urduritasunari... botatzen diogu errua, baina justifikazio hauek onartu ezinak dira, eta argi izan behar duguna zera da, behin gertatuz gero berriro gertatzeko aukera handiak daudela, beraz kontuz!

*Biluzik Sexologia Zerbitzua
(Astelehena 17:00-20:00)
Gazte Informazio Gunea,
Kultur Etxea.
Bigarren solairuan.
Tel. 943 74 14 61.
E-maila: biluzikzerbitzua@yahoo.es*

SEXUALITATEA
konplejurik gabe

AKUIKULTURA

IZENA

Goi Mailako Akuikultura Zikloa

IRAUPENA

Bi urte

PRAKTIKAK

Alde praktikoa da garrantzitsuena.

IKASGAIAK

1. mailan: Arraien hazkuntza, muskuiluen hazkuntza, Akuikulturako produktuen prozesuen antolaketa. 2. mailan: Goi Zikloetako ohiko ikasgaiak.

NON IKASI

Mutrikuko Institutuan, klaseak kofradian.

kontzertuak

BEKAK

Turismoa

Eusko Jaurlaritzak merkatu igorleetako turismo sustapenean adituak prestatzeko 12 hilabeteko iraupeneko 4 beka eskaintzen ditu, nazioarteko turismo-merkatuetan espezializatutako giza balibideen garapena sustatzeko xedez, EAEko turismo-sektorean behar bezala prestatutako profesionalen presentzia indartzeko. Baldintzak: Unibertsitateko goi-mailako titulazioa, Turismoko diplomatu edo turismoko Enpresa eta Jardueretako Teknikari (TEAT) izatea, 30 urtetik beherako adina izatea, eta joan behar duen herrialdeko hizkuntza ahoz nahiz idatziz menperatzea. Epea: urriak 14

Gradu-ondoko ikasketak

ESEUNE Negozio Eskolaren enpresa lankideek Europan eta AEBetan gradu-ondoko ikasketak burutzeko 8 beka eskaintzeko deialdia egin dute. Bekek Enpresen Zuzendaritzako Masterra (Global MBA) programa burutzeko aukera emango dute Eseune Negozio Eskolan edota Georgetown University-n. Baldintzak: 28 urtera arteko adina izatea eta edozein unibertsitate-ikasketetako lizentziatura edo diplomatura edukitzea. Epea: urriak 15

IKASTAROAK

Defentsa pertsonala

Azkoitiko Udalak 8 orduko defentsa pertsonaleko ikastaroa antolatu du. Ikastaroa astelehenetan emango da 19:00etatik 20:00etara Azkoitiko Zubi Aurre Kirolegian, urriaren 18an hasita. Bertan 13 urtetik gorako adina duen edonork har dezake parte Azkoitiko Gazteentzako Informazio Bulegoan (telefonoa : 943 026027) izena emanda. Epea: urriak 14

Komiki tailerra

Donostiako Fantasiarazko eta Beldurrezko Komikien I. Jardunaldien barruan, Iñaki Martiarena "Mattin" arduradun izango duen komiki tailerra antolatu dute 15etik 20 urtera bitarteko gazteei zuzenduta. Bertan komikiaren hastapenak landuko dira (materialak, pertsonaien sorrera, bineta, muntaia eta gidoiak). Azaroaren 8tik 12ra bitartean izango da, 19:00etatik 21:00etara Donostiako Larrotxene Kultur Etxean. Epea: urriak 22

LANA

Irakasleen lan poltsa

Oiartzungo Haurtzaro Ikastolak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleen lan poltsa osatu nahi du. Interesatuek curriculum bidali beharko dute urriaren 13a baino lehenago posta arrunta edota posta elektronikoko bidez ondorengo helbideetara: Haurtzaro Ikastola, Elorrondo kalea z/g, 20180 Oiartzun edo oiartzun@ikastola.net. Epea: urriak 13

Perkusio irakasleak Bilboko Udalerako

Bilboko Udalak Bilboko Udal Musika Bandan lan egingo duten perkusionisten lan-burtsa eratzeko deialdia egin du. Baldintzak: Perkusioko espezialitateko Goi Mailako Irakasle titulua edukitzea. Epea: urriak 15

URRIA

8 barixakua

BERGARA
22:00 SFDK
Jam Aretoa

DURANGO

22:30 Audience eta Kokein
Txosnak

DONOSTIA

22:00 Melendi
Illunbe

BILBO

22:00 Terry Callier
Kafe Antzokia

14 eguena

DONOSTIA
20:00 Bebe
Kursaal aretoa

15 barixakua

BERGARA
20:30 Papa Roach
Jam Aretoa

LASARTE

21:00 Gorkhiru
Jalgi Aretoa

16 zapatua

BERGARA
22:00 Machine Head
Jam Aretoa

17 domekia

DONOSTIA
20:00 Luz Casal
Kursaal

21 eguena

BILBO
22:00 Kid & Khan
Kafe Antzokia

22 barixakua

ARRASATE
22:00 Kokein
Gaztetxea

BILBO

22:00 Black Roots Festival
Kafe Antzokia

23 zapatua

DONOSTIA
22:00 Extremoduro
Anoeta Belodromoa

DONOSTIA

20:00 Manolo Garcia
Kursaal Aretoa

24 domekia

DONOSTIA
20:00 Manolo Garcia
Kursaal Aretoa

29 barixakua

ONDARROA
22:30 Eraso eta Neubat
Kafe Antzokia

AZAROA

5 barixakua

BILBO
22:00 Los del tonos
Kafe Antzokia

“Elgoibartarren Esanetan” liburua urriaren 14an, ostegunean, aurkeztuko da Kultur Etxeko sotoan

Jabi Leon kazetaria Elgoibarko memoria historikoa berreskuratzen saiatu da

Elgoibarko Udalak sustatutako ikerketa lana da “Elgoibartarren Esanetan” liburua. Jabi Leon kazetari elgoibartarra izan da liburuaren egilea eta bere jaioterriko memoria historikoa berreskuratu nahi izan du. Elgoibartarrei eta, batez ere, belaunaldi berriei, Elgoibar XX. mendearen lehenengo erdialdean nolakoa zen ezagutarazi eta herriari buruzko ikuspegi orokorra eman nahi izan du. Egilearen hitzetan, “pasadizo ugari aipatzen den arren, ez dugu xehetasun xumeetan galdu nahi izan. Irakurterraza izan zedila nahi genuen, haur zein helduentzako egokia. Liburuaren alderdirik azpimarragarriena, berriz, elkarrizketatuek egindako 300 aipu inguru jasotzen direla da. Seriotasunez egindako lana izanagatik, ez da umorerik falta aipuetan”.

Honez gain, Elgoibarko Udalak bultzatutako lan batean gure herriko euskara jasota geratu den estreinako aldia izan da, “Jesus Mari Makazaga filologo elgoibartarrak egokitu ditu aipuak gure herriko hizkerara”. Sasoi haiek bizi izan zituzten protagonisten lekukotasuna hartu du oinarritzat kazetari eta ikerlariak, 80 urtetik gorako 21 lagun elkarrizketatu baititu azken hiru urteotan eta ondoriorik esanguratsuenak plazaratu: nola ospatzen zituzten jaiak, zerk kezkatzen zituen, erlijioak zuen eragina, zein zen haien ogibidea eta beste hainbat galderari erantzuna ematen zaie liburuan.



Aurkezpena urriaren 14an

Liburua euskaraz eta gazteleraz idatzita dago, 180 orrialde ditu, eta antzinako ehun argazki baino gehiago agertzen dira bertan. Momentuz, 750 ale kaleratuko ditu Udalak eta urriaren 14an, egunean, 19:00etatik aurrera egingo da liburuaren aurkezpena Kultur Etxeko sotoan. Egileak herritarrak gonbidatu nahi ditu aurkezpenera eta bide batez liburu osatzen lagundu dioten guztiak eskertu, “elkarrizketatu guztiak eskertu nahi ditut nirekin izan duten pazientziagatik eta tarte honetan hil direnak ere gogoan izan nahi nituzke. Udaleko Euskara eta Kultura sailtako langileek eta Jesus Mari Makazagak eskainitako laguntza ere ezinbestekoa izan zait”.

Elgoibartarren esanetan egitasmoa duela hiru urte hasi zen. Landa azterketa edo elkarrizketak egitea izan zen lehen lana. Ondoren, erakusketa bat antolatu zuten ordura arte bildutako materialarekin. www.elgoibar.org helbidean ikusgai dagoen bertsio digitala osatu zuten gero eta “Elgoibartarren Esanetan” liburua kaleratzea izan da azken ekarpena.

Hurrengo pausua, berriz, orain arteko material guztiarekin CD bat osatzea izango da. CDaren eduki guztiak www.elgoibar.org helbidean elektronikoa kontsultatu ahal izango dira datorren urte hasieratik aurrera. Berrikuntza gisa, elkarrizketatu batzuen aipuak entzun ahal izango dira.



ESKERTZA

2004ko irailaren 30ean, 60 urte zituela hil zen, **ANTONIO MARTIN MOLINS**en emazteak, anai-arrebek, ilobek eta gainerako sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** dituzte jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Aritza Monasteriok bide berri bat ireki du Mendebaldeko Chacaraju mendiaren iparraldean

“El señor de las torres” izena jarri diote bi eslobeniarrekin batera irekitako bideari

Peruko Mendikate Zurian dagoen Mendebaldeko Chacaraju (6112 m.) mendiaren iparraldean bide berria irekitzea lortu zuen Aritza Monasterio goi mendizale elgoibartarrak joan zen uztailaren 8an. Peruko Huaraz herrian bizi da Aritza aspaldian. Aterpetxe bat ireki du bertan eta mendiko gidari lanak egiten ditu Mendikate Zuria eta Huayhuash-en. Pavle Kozjek eta Marjan Kovac eslobeniarrek izan zituen lagun Aritzak espedizioan. Gailur asko igo eta bide berri mordoa ireki ditu hirukote honek elkarrekin Andeetan. Oraingo erronka ere ez zen kamutsa, eta 24 orduko (14 igotzen eta 10 jaisten) lan gogorraren ostean lortu zuten Mendebaldeko Chacaraju mendiaren iparraldean bide



berria irekitzea. Irekitako bideari “El señor de las torres” (800 m, ED+, 6a, A1, A16, 90/55-70°) izena jarri zioten.

Gailurrera ilunetan

Pariako bailaran jarri zuten kanpamentu nagusia eta bederatzi ordu behar izan zituzten paretaren azpialdera iristeko. Bailararen goialdean klima gogorra eta ezegonkorra da nagusi eta paretaren igotzen hasi zirenean elur ekaitz bortitzak babeslekua topatzera behartu zituen. Hurrengo goizeko eguraldi ona aprobetxatuz aurrera egin zuten, baina iristear zedela lurjausi batek bidea moztu zuela ohartu ziren. Bertatik jarraitzea ezinezkoa zela ikusirik beste bide bat topatzeko lanetan gauak harrapatu zituen eta linternekin bada ere gaueko 22:00etan iritsi ziren tontorrera. Jaitsiera ez zen batere xamurra izan, zeharo ahituta baitzeuden alpinistak.

Aiastiako Bolo Txapelketa urriaren 16an jokatu da



Euskadiko Hiru Txirlo Bolo Txapelketari dagokion bigarren jardunaldia Aiastiako (San Migel) bolatokian jokatu da urriaren 16an, zapatuan, arratsaldeko 16:30etik aurrera. Joan zen urriaren 2an hasi zen Euskadiko XV. Hiru Txirlo Bolo Txapelketa Markinako Iruzubietako bolatokian. 76 bolarik parte hartu zuten bertan eta Iruzubietako Mateo Goenaga markinarra izan zen irabazlea 8 txirlorekin. Bigarren postuan Imanol Osoro sanmigeldarra sailkatu zen 7 txirlorekin. Gorka Etxaniz azkoitiarra izan zen hirugarren 7 txirlorekin hau ere.

Devilsurf.com Saria urriaren 10ean jokatu da Azkarateko errepide zaharrean

Urriaren 10ean, domeka honetan, Devilsurf.com Sariaren proba berri bat jokatu da Elgoibarren, Azkarateko errepide zaharrean behera, hain zuzen ere. Estatu osoan Elgoibarren ikusi ahal izan genuen lehenengo aldiz kirol honetako lasterketa bat, eta aurtengoa gure herrian jarraian ikusi ahal izango dugun hirugarren urtea izango da. Aurten gainera, beste hiru kirol berri eta ikusgarri aurkeztuko dituzte antolatzaileek: Trikke, Gravity.Bike eta Golfo3. Zapatuan, urriaren 9an, probintzia kanpotik datozen parte hartzaileei ongi-etorria egingo diete eta domekan, berriz, 10:30ean hasiko da Slalom proba. Azkaraten behera egingo den erlojuz kontrako lehen txanda 16:00etan hasiko da. Ondoren, Golfo3 (goitibehera bereziak) erakusketa izango da 17:30ean. Erlojuz kontrako bigarren txanda 18:00etan hasiko da. Iluntzeko 20:00etarako amaituko dira proba guztiak.



Gravity Bike

San Pedrorra Txirrindulari Igoera urriaren 12an, Pilarika Egunean, ospatuko da



Urtero legez, Pilarika Egunean, domekan, ospatuko da txirrindulari denboraldiari amaiera ematen dion proba. Elgoibarko Lagun Taldeak antolatzen duen zikloturista kategoriako probaren 13. edizioa izango da aurtengoa. 48 lagunek parte hartu zuten iaz, tartean 33 elgoibartarrek. Irabazlea, berriz, Iñigo Lariz izan zen (13:35). Aldekoa Lizarralde taldeko afizionatu mailako txirrindulari elgoibartarrak lau alditan irabazi du proba hau eta bere eskuetan du gainera, igoerako errekorra (13:21). Lasterketako partaideak 12:00etan aterako dira Plaza Handitik.

Berriz ere iparraldeko pilotariak nagusi Errosario kaleko jaietan

Seitik sei. Sei alditan etorri dira Iparraldeko pilotariak Errosario jaietan bertako pilotariekin indarrak neurtzera eta guztietan atera dira garaile. Aranburu eta Sourhet pilotariak osatu zuten aurtengo Iparraldeko bikotea, biak ere trinketeko munduko txapelidunak izandakoak. Aranburu aurrelaria urtero etorri izan da eta jadanik neurria hartua dio Plaza Handiko frontoiari. Dena dela, inoiz baino estuago hartu dituzte aurtun Elgoibarko pilotariak. Andikanoko Karmel Leonek eta Eneko Loiola sanmigeldarrak osatutako bikote gazteak ez zuten erraz amore eman. 16 eta 8 galtzen joan



ziren, baina 17 eta 18raino hurbildu ziren markagailuan, nahiz eta azkenean 22 eta 17 galdu. Partida polita eskaini zuten lau pilotariak eta ikusleak gustura geratu ziren.

45 lagun joan ziren oinez kilometroetara Morkaikorekin

Elgoibar eta Orio artean dauden ia 35 kilometroak oinez egin zituzten 45 elgoibartarrek joan zen domekan, hilaren 3an. Morkaiko Mendizale Elkartek antolatutako irteeraren helburua Zarautzen eta Orion ospatu zen Kilometroak 2004 jaira oinez joatea zen. Horretarako, goizaldeko 6:30ean atera ziren Plaza Handitik eta Azkarate gaineraino ilunetan egin zuten bidea, frontalen argipean. Handik Aittolara abiatu ziren eta Zestoarantz jaitsi



ostean, Aizarnaraino igo ziren. Urdanetako gainera iritsi eta gero, beherako bideari ekin zioten. Pagoeta zeharkatuz Oriora iritsi ziren 15:00ak inguruan.

EMAITZAK

Futbola

Arenas 2 – Haundi 0 (3. maila)
Elgoibar 1 – Eibartarrak 2 (1. erreg.)
Elgoibar 3 – Bermeo 0 (Jub.)
Añorga 1 – Elgoibar 1 (Kad.)
Elgoibar 3 – Lengokoak 1 (Inf A)
Elgoibar 5 – Hernani 1 (Inf. B)
Hernani 0 – Elgoibar 2 (Neskak)

Esku pilota

Gipuzkoako Txapelketa

Lagunak 22 – Eibar11 (Nag.)
Lagunak 22 – Altzatarra 21 (Nag.)
Lagunak 22 – Tartaloetxe 3 (Jub.)
Bergara 7 – Lagunak 22 (Jub.)

Areto Futbola

Lo+ 3 – Kenci Elg. 2 (Nazional B)

Eskubalola

Pagoaga 10 – Askartza 21 (Kad. nesk.)
Cometel 14 – Askartza 21 (Jub. nesk.)
ANTT Elg. 19 – Bergara 16 (Sen. mut.)
Romo 26 – Tecnifuelle Elg. 23 (Sen. mut.)

Idarraga kafeak 8. saria

HAUNDIko jokalaria erregularrena 04/05

JOKALARIA PUNTUAK

| | |
|-------------------------|---|
| 1- Mikel Calvo | 8 |
| 2- A. Arenas | 7 |
| 3- J. Igartua | 7 |
| 4- Javi Gomez | 6 |
| 5- I. Oruesagasti | 5 |
| 6- Iribar | 5 |
| 7- Loren | 4 |
| 8- J. Arrasate | 4 |
| 9- Guinea | 3 |
| 10- Ibai Gonzalez | 3 |
| 11- Navarrete | 2 |
| 12- M. Elkorro | 3 |
| 13- Mandiola | 2 |
| 14- Etxabe | 2 |

AGENDA

Eskubalola, Kiroldegian

Zapatua, 9

17:45 Tecnifuelle Elg. – Portuagalete (Sen.mt.)

Areto futbola, Kiroldegian

Zapatua, 9

16:00 Kenci Elg. – Beti Arin (Nazional B)

Esku pilota, Ikastolan

Barixakua, 8

22:00 Lagunak – Añorga (Jub.)

Futbola, Mintxetan

Zapatua, 9

10:30 Elgoibar – Mutriku (Neskak)

12:15 Elgoibar – Oiartzun (Kad.)

Domekia, 10

17:00 Haundi – Amorebieta (3. maila)



Langai
Euskal Lan Zerbitzua

Gipuzkoako enpresak **autobuserako txoferra** behar du.

Erref. 162004006730

Bergarako enpresak **elektrikaria** behar du. **Erref. 162004008435**

Mutrikuko enpresak **altzari muntatzailea** behar du.

Erref. 162004007788

Gipuzkoako enpresak **programatzailea** behar du.

Erref. 162004008333

Azpeitiko enpresak **ingeles irakaslea** behar du. **Erref. 162004008194**

Gipuzkoako enpresak **bidaiaria** behar du.

Erref. 162004008104

Zestoako enpresak **galdaragilea** behar du. **Erref. 162004008098**

Azpeitiako enpresak **erizaina** behar du. **Erref. 162004008192**

Bergarako enpresak **gorputz heziketa irakaslea** behar du.

Erref. 162004007843

Hautagai moduan sartzeara eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauekiko batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

Lana

ESKAERA

◆ Emakumea garbiketa lanak egin, haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **639 88 20 04**

◆ Emakumea garbiketa lanak egin, haurrak edo nagusiak zaintzeko prest, 10:30etik 17:30era. Asteburuak barne. ☎ **626 91 49 04**

◆ Kamarero, sukaldari laguntzaile edo igeltsero peoi lanetarako prest. ☎ **678 840 531**

◆ Emakumea gaixoak zaintzeko prest. Igandeak barne. Esperientzia daukat. ☎ **943 17 28 96 (Mertxe)**

◆ Neska dependentia lanetarako prest. ☎ **943 17 28 96 (Mertxe)**

◆ Emakumea garbiketa lanak egin, baserri lanak, edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **676 38 22 23/943 53 19 87**

◆ Emakumea garbiketa lanak egin edo kamarera lanetarako (esperientzia) edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **660 92 75 66**

◆ Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusi edo haurrak zaintzeko prest. ☎ **645 73 51 16**

◆ Sistema Informatikoen Administrazioa ikasi duen pertsona lanerako prest. ☎ **680 23 76 31**

◆ Haurtzaindegian esperientzia duen mutila haurrak zaintzeko prest. ☎ **943 03 36 92**

◆ Emakumea goizez edozein lan egiteko prest. Euskalduna, kotxea daukat. ☎ **690 798 545 (Irene)**

ESKAINITZA

◆ Jatetxerako kamareroa behar da. ☎ **943 12 12 62**

◆ Kamarero lanak eta pintxoak egingo dituen pertsona behar da. Zapaltuetan (16:00-21:00), igandetan (11:00-14:00). ☎ **696 06 06 18**

◆ Asteburuetan taberna garbitzeko emakumea behar da. ☎ **670 25 04 29**

◆ Astean zehar lan egiteko kamareroa behar da. ☎ **665 850 425**

◆ Kamarera behar da asteburuetan taberna-jatetxerako. ☎ **635 75 16 42**

◆ Jantoki eta barrarako kamareroa behar da. ☎ **943 76 48 63**

◆ Soralezko Pil pilean aldizkariak kazetaria behar du egun erdirako. Kurrikulumak bidali: Pil Pilean Euskarra Elkarte, 27 postakutxa, 20590 edo pilpilean@euskalnet.net ☎ **943 75 13 04**

Etxebizitzak

◆ Etxea salgai Santa Ana kalean. Eguzkitsua, 3 logela, egongela, bainu-gela, komuna eta ganbara. 83m². 20m²ko garajea aukeran.

☎ **943 53 02 02**

◆ Pisu salgai Mendaron. Berria. Altzariekin. 3 logela, sukalde-jangela, komuna eta trastero handia.

☎ **609 96 53 95/650 12 96 05**

◆ Etxea salgai Urasandin. 3 logela, egongela, sukalde, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan.

☎ **636 22 31 42**

◆ Pisu hartuko nuke alokairuan.

☎ **678 840 531**

◆ Bi logelako apartamentua hartuko genuke alokairuan.

☎ **679 819 314 (Amaia)**

◆ Soraluzen etxe berritua salgai.

☎ **615 77 99 20**

◆ Logela bat alokatzen da.

☎ **943 74 18 81**

◆ Pisu salgai Mendaron. Berria. Garaje eta trasteroarekin. Prezioa adosteko. ☎ **686 045 321/943 74 15 21**

◆ Etxea edo logela hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.

☎ **615 17 73 62 (Juan)**

◆ Apartamentua eta lonja salgai Ean (Bizkaia). Aukera ezinhobea.

☎ **639 47 47 39 (Manolo)**

◆ Benidorm-en apartamentua alokatzen da. ☎ **943 74 06 28**

◆ Etxea salgai Mendaron. Altzariz jantzi berria. Dena kanpora begira. Prezioa adosteko. Aukera paregabea.

☎ **625 26 09 39/943 75 62 05**

◆ Etxea salgai Errosario kalean. 3 logela, egongela, sukalde, komuna eta despentsa. Berogailu zentrala. Bizitzera sartzeko moduan.

☎ **699 179 872/943 74 02 68**

Garajeak

◆ Madalako etxeetan garaje itxia alokatzen da. ☎ **655 71 20 21**

◆ Bi pisutako garajea salgai Urasandin, Anayak ondoan. 16m².

☎ **943 74 09 80/636 20 51 89**

◆ Garajea salgai Pista Beltzean.

☎ **943 74 07 57 (Arantza)**

◆ Garajea hartuko nuke alokairuan Urasandin. ☎ **943 74 08 63**

(20:00etatik aurrera)

◆ Garaje itxia salgai Madalatik gertu. ☎ **943 74 24 06**

◆ Madalako etxe berrien azpian 23m²ko garaje itxia alokatzen da.

☎ **605 77 34 53**

(21:00etatik aurrera)

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

Salerosketak

◆ Opel Vectra 2.0i gasolina, 147 zaldia, salgai. Egoera oso onean. 4 urte. Km gutxi. ☎ **665 731 879**

◆ Seat Toledo Sport 2.0 cv salgai. SS-AN. 170.000 km. Oso egoera onean, merke. ☎ **617 71 91 21**

◆ Altzariak salgai. Oso merke. ☎ **620 07 38 93**

◆ Toshiba Satellite A40-201 ordenagailu portatila salgai. Berria, estreinatua gabea. Eskaintza oso ona. Pentium IV 2.8 GHz. 512 Mb RAM. CD-RW eta DVD. 1000 euro. ☎ **943 74 14 48**

◆ Gitarrantzako pedaleda salgai. Zoom 606. ☎ **943 74 32 94**

◆ Opel Kadet 1.400 salgai. Ekonomikoa. Egoera onean. ☎ **943 74 11 30/943 74 00 19**

◆ Bi bizikleta salgai: Trialeko Monti 219XMagura eta GT-02 De Free Estil. Prezioa adosteko. ☎ **680 74 40 53**

◆ Ibilitzeko zinta elektrikoa salgai. Nahiko berria. ☎ **943 74 14 94**

◆ Tokadorea salgai. Egurrezko bi kajoirekin. Fresno egurrezkoa. Egoera onean. ☎ **943 74 14 94**

Lokalak

◆ Madalako etxeen azpian 5,5m²ko trastero alokatzen da. ☎ **605 77 34 53**

Bestelakoak

◆ Taberna alokatu edo saltzen da Elgoibar erdialdean. ☎ **656 72 44 01**

◆ Bizikleta puzgailua aurkitu nuen irailaren 29an Atxolin inguruan. ☎ **943 74 16 64**

◆ Urrezko belarririk galduta nuen Santa Ana kaletik Plaza Handira bitartean. Koloretako hiru harri ditu: gorria, berdea eta urdina. ☎ **659 94 03 58**

◆ Urrezko domina topatu dut, Iñaki ize-na daramana. ☎ **656 72 47 82**

Agurrak

♦ Zorionak **Esther Idiakez**, hilaren 7an zure eguna izan zelako. Familiakoen, eta bereziki, losu, Maria, Ane eta Nerearen partez.



♦ Zorionak **Aidari**, hilaren 6an, 3 urte bete zituelako. Gurasoen eta zure ahizpa Tamararen partez.



♦ Zorionak **Nerea**, gaur, 5 urte bete dituzulako. Familiako guztien partez.



♦ Zorionak **Iratiri**, urriaren 14an, urtebete egingo duelako. Familiakoen, eta bereziki, Ioneren partez.




♦ Zorionak **Oier Arriolari** etxeko guztien partez hilaren 13an 4, urte egingo dituelako. Xabiren partez ere patxo handi bat.



♦ Zorionak **Danel Zubizarretari**, hilaren 5ean, bi urte egin zituelako. Familiako guztien partez, muxu handi bat.



♦ Zorionak **Aritz Borgari**, urriaren 6an, 12 urte bete zituelako. Aiton-amonen partez.



♦ Zorionak **Jabier Urbietta**, astelehenean, urriak 4, bi urte egin zenituelako. Aiton-amonena eta osaba-izeben partez.



♦ Zorionak **Malen**, atzo, urriak 7, 3 urte egin zenituelako. Familiakoen partez, muxu handi bat.



♦ Zorionak **Ainhoa**, urriaren 7an, 12 urte bete zenituelako. Pilarreko laguneren partez.



♦ Zorionak **Joanari**, asteartean, hilaren 12an, 13 urte egingo dituelako. Muxu handi bat gurasoen, eta bereziki, ahizpa Itxasoren partez. Baita ere, aitxixxa Jose Mari, Olu eta Titoren partez.



URKIDI AHOLKULARITZA

KONTABILITATE
LAN
FISKAL



ASEGURUAK

Kalamua, 12 · ELGOIBAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91

Iriondo

TABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2 · Tel: 943 74 00 15

Farmazia - okindegia

| EGUNEZ | GAUEZ |
|--|------------|
| 8 Zabaleta | Zabaleta |
| 9 Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 10 Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 11 Ibañez | Ibañez |
| 12 Yudego | Yudego |
| 13 Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 14 Fernandez | Fernandez |
| 15 Yudego | Yudego |
| 16 Etxeberria (Santa Ana kalean) | Zabaleta |
| 17 Zabaleta | Zabaleta |
| 18 Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 19 Ibañez | Ibañez |
| 20 Bidasolo | Bidasolo |
| 21 Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 22 Fernandez | Fernandez |

FARMAZIAK

ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.

Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,

Herriko enparantza 4, Garagarza.

Tel: 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.

Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

10 igandea Eizagirre

12 asteartea Foteru

17 igandea Ibarrenea

15 BARIXAKUA

17:30 ESKOLA ETA FESTA

Poxpolo Mokolo pailazoan eta konpainiaren ikuskizuna.

Herriko Antzokian



8 BARIXAKUA

17:30 KIRIBILKA PROGRAMA

3-8 urte bitarteko haurrei zuzendua

Plaza Handian

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

10 DOMEKIA

10:30 DEVILSURF SLALOM PROBA

16:00 DEVILSURF.COM III. SARIA

(LEHEN TXANDA)

Azkarateko errepide zaharrean

17:30 GOLFO3 ERAKUSTALDIA

18:00 DEVILSURF.COM III. SARIA

(BIGARREN TXANDA)



12 MARTITZENA

12:00 PILARREKO

AMABIRJINAREN ALDEKO MEZA

Pilar Ikastetxeko gimnasioan

13:00 ERREZABAL GURASO

ELKARTEAK PRESTATUTAKO

JANAURREKOA

Pilar Ikastetxean

12:00 SAN PEDRORA

TXIRRINDULARI IGOERA

Irteera: Plaza Handitik

Antolatzailea: Elgoibarko Lagun Taldea



14 EGUENA

19:00 "ELGOIBARTARREN

ESANETAN" LIBURUAREN

AURKEZPENA

Egilea: Jabi Leon kazetaria

Kultur Etxeko sotoan

16 ZAPATUA

16:30 AIASTIAKO BOLO

TXAPELKETA

Euskadiko Hiru Txirlo Bolo

Txapelketaren bigarren jardunaldia

Aiastiako (San Migel) bolo tokian

17 DOMEKA

12:30 ELGOIBARKO UDAL MUSIKA

BANDAREN KONTZERTUA

Herriko Antzokian

19 MARTITZENA

20:00 TOMAS ARANBERRI

MISIOLARIAREN HITZALDIA

Gaia: Peruko egoera

Parrokiko lokal berrietan (Trenbide kalea)

22 BARIXAKUA

19:00 KOKOE KOMIKI

LEHIAKETAKO LANEN

ERAKUSKETA

Kultur Etxeko erakusketa gelan

Urriaren 31ra arte

Antolatzailea: Kokoe Komiki Elkarte

22:15 "URKO"REN KONTZERTUA

Herriko Antzokian

IKASTETXEAK

Ikasturte hasiera Txandakako Ingeniaritzan

Txandakako Enpresa Ingeniaritzako lehenengo eta bigarren kurtsoko ikasleek urriaren 18an, astelehenean, emango diote hasiera 2004-2005 ikasturteari, IMHko Areto Nagusian. Enpresa munduko gonbidatu batek hartuko du parte hasiera ekitaldian eta hitzaldia eskainiko die ikasleei. Saioa 15:00etan hasiko da. Hirugarren kurtsokoak irailean hasi ziren, abendura arte atzerrian praktikak eginaz

LEHIAKETAK

Kartel lehiaketa

2005eko Elgoibarko Herria Instrumentu Taldeen IV. Lehiaketarako kartela aukeratzeko lehiaketa abian da. Inazio Bereziartua Musika Eskolak antolatzen duen lehiaketan honako testua agertu beharko da kartelean: Instrumentu Taldeen IV Lehiaketa "Elgoibarko Herria" IV Concirso Conjunto Instrumental. Martxoak 12/13 2005 12/13 Marzo. Sari bakarra izango da, 300 euro irabazlearentzat. Originalak helbie honetara bidali beharko dira: Inazio Bereziartua Musika Eskola (Aita Agirreren Plaza 4, 20870 Elgoibar, telefonoa 943 74 21 45). Entregatzeko azken eguna 2004ko azaroaren 5a. Kartelaren tamaina hau izango da: 63 x 43 cm. Eta norberak nahi duen teknika aukeratu dezake. Lanak izenik gabe aurkeztu beharko dira, atzeko aldean ezizen bat bakarrik eraman dezakete. Oinarri eta informazio gehiago Inazio Bereziartua Musika Eskolan.

BERTSOAK

Bertso afaria Mendaron

Mendaroko In Leike Kultur Taldeak Udalaren laguntzaz bertso afaria antolatu du hirugarren urtez jarraian. Urriaren 15ean, barixakuan, izango da Aizpe Elkartean (21:30). Bertsolariak, berriz, Jon Maia eta Joxe Agirre izango dira. Txirristakan edo Uztargin eman beharko da izena urriaren 13a baino lehen. Prezioa 20 eurokoa izango da.

IKASTAROAK

Dantza ikastaroak

Haizea Emakume taldeak sevillana, salsa eta merenge ikastaroak eskainiko ditu. Ostegunero eta ostiralero izango dira klaseak 14:00etatik 16:30era. Izena emateko edo informazio gehiago nahi izanez gero jo Pitxintxu dendara.

OSPAKIZUNAK

Pilar-eko amabirjinaren ama

Urriaren 12an, domekan, ospatuko du Pilar ikastetxeak Pilarreko Amabirjinaren Eguna. Aurrez Amabirjinaren omenezko astea ospatu berri dute eta jolastordu denboran pilota partidak eta futbol txapelketa jokatu dituzte. Gaur, urriaren 8an, berriz, ikastetxeke zaindariaren aldeko jaia izan dute eta goizean zehar futbol eta pilota finalak jokatu ostean arratsaldean jaiak jarraituko du. Urriaren 12an, berriz, meza izango da ikastetxeke gimnasioan 12:00etan eta 13:00etan Errezabal Guraso Elkartek prestatutako janaurrekoa.



ELGOIBAR, Herriko Antzokian

"Kill Bill 2"

8, barixakua: 22:15

9, zapatua: 19:30-22:15

10, domekia: 19:30-22:15

11, astelehena: 22:15

"Zafarrancho en el rancho"

10, domekia: 16:30

"Yo Robot"

15, barixakua: 22:15

EIBAR, Unzaga

"El Espanta Tiburones"

8, barixakua: 19:30-22:15

9, zapatua: 17:00-19:30-22:30

10, domekia: 17:00-19:30-22:30

11, astelehena: 19:30-22:15

12, martitzena: 19:30-22:15

13, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, Rialto

"Mar Adentro"

8, barixakua: 19:30-22:15

9, zapatua: 17:00-19:30-22:30

10, domekia: 17:00-19:30-22:30

11, astelehena: 19:30-22:15

12, martitzena: 19:30-22:15

13, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENEK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.



"Kill Bill 2"

Zuzendaria: Quentin Tarantino

Antzezleak: Uma Thurman, David Carradine, Gordon Liu.

Bere lagunak izandako O-Ren Ishii (Lucy Liu) eta Vernita Green (Vivica A. Fox) akabatu ostean, Uma Thurmanek antzezten duen emakume lirain eta gupidagabeak bere justizia egarria ase ahal izango du bigarren zati honetan. Bi arerio hil eta gero beste bi geratzen zaizkio zerrenda beltzetik ezabatzeko: Budd (Michael Madsen) eta Elle Driver (Daryl Hannah). Bi oztopo hauek gaudituz ostean bere azken eta benetako helburua, Bill (David Carradine) hiltzeko bidea libre izango du.

ZINEA



A

ste honetako erretratu zaharra Errosario kaleko bizilagun batek laga digu. Aste honetan bertan, Errosario kaleko jaiak ospatu direnez, egokia iruditu zaigu erretratu hau kaleratzea. Argazki hau 1919. urtean Errosario kaleko jaietan ateratakoa da. Garai hartan ere, Errosario kaleko bizilagunek festak antolatzeko zaletasun handia zeukaten, eta urte honetan jai ederrak antolatu omen zituzten. Elgoibarko musika banda aurrean dutelarik, begira nolako dotore agertzen diren argazkian jaietarako prest! Argazki honek ez dauka kalitate handirik, baina norbaitek agian aurkituko du ezagunen bat bertan.



ESKERTZA

2004ko urriaren 1ean, 85 urte zituela hil zen,
MIGUEL SÁNCHEZ LEJARZAren
emazteak, seme-alabek, bilobek eta gainerako sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** dituzte jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

2004ko urriaren 3an, 73 urte zituela hil zen,
CARLOS AGIRRE SAN MARTINen emazteak, semeak,
anai-arrebek eta gainerako sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** dituzte
jasotako doluminak. Bere aldeko **MEZA** izango da
San Lorentzoko basilizan, domekan, hilak 10, goizeko 10:30ean.
Joango zaretanoi eskerrak alde zurretik.



ETXEBIZITZEN SALMENTA

ETXEBIZITZAK
APARTAMENDUAK
DUPLEXAK
LORATEGIDUN DUPLEXAK
GARAJEAK
MERKATARITZA LOKALAK



MAALA
BIZIGUNEA



Salmenta bulegoa:
Bernardo Ezenarro, 2

 **943 740 858**

Eraikitzailea:



Sustatzailea:

**URTAGO
PROMOZIOAK, A.I.E.**

AZKEN ETXEBIZITZAK salgai



Neinor 

NEINOR Azkoitia
Julio Urquijo Etorbidea, 10
20.720 AZKOITIA

 **943 852 411 - 943 317 511**

- 3 logelako etxebizitzak eta
4 logelako duplexak behelalde estaliarekin
- Terraza eta lorategi handiak. Garaje itxiak. Leku eguzkitsua
hegoaldera begira eta bista panoramikoak.

D Elustondo, S.L.

EDARI BANATZAILEAK

Elustondok aholkatuta:



*Faustino,
David Moreno eta
Araco kriantzak*



*Faustino V eta
David Moreno
erreserbak*



*Faustino VII
hainbat urtabetako
nahasketa*



*Aizpurua, Txomin Etxaniz,
Roke Lizaguirre txakolinak
eta Bereziartua sagardoa*



*Juve Camps eta
Juve Serra cava*



*Idiaquez, David Moreno
eta Señorío Araco
urteko ardo beltzak*

- Denominazio gabeko Errioxako ardoak
- Errioxako ardoak
- Kriantzak, erreserbak,...
- Cavak, "Faustino", "Martinez"...
- Orujoak / Afilador orujoa
- Likoreak
- Getariako Aizpurua txakolin freskoa
- Kontserbak



*Trujal Mendia (Arroniz)
Nafarroako oliba-olio birijin estra*

San Roke, 32 - 34 (Institutu parean)

Tel. 943 74 09 92